

EUSKAL-ERRIA-RI.



Aitor gure aitaren
 Erri menditiya,
 Lekobide jayo zan
 Toki gozotiya,
 Berdiñikan ez dezun
 Euskaldun-Erriya,
 Zuretzako da nere
 Izate guztiya.

Zuretzat det biyotza,
 Zuretzat gogoa;
 Zugatik sentitzen det
 Otsare ¹ suzkoa.
 ¿Nola maitako etzaitut,
 Erri chit gozoa,
 Izanik zure mendi
 Tartean jaiyoa?

Jainkoak piztu ziran
 Jayo nitzanean,
 Maitetasun biziya
 Nere barrunean;
 Maitetasun onekin
 Biyotza jaztean,
 Esanaz, maitatzeko
 Zu, gozo betean.

¡Erri maitea! beltzez
 Zakust gaur janzirik
 Zergatik agiri dan
Aritza legorrik;
 Zergatik gozaten ez
 Dezun lege zarririk,
 Arkitzen zeralako
 Naigabez beterik.

Isurtzen zait ugari
 Begitik negarra,
 Ikusitzean zure
 Miñaren indarra;
 Ikusirik *aritz*a
 Gernikan igarra,
 Ikusirik zaudela
 Triste ta bakarra.

Baña Zeruan dakust
 Miñen pozgarriya,
 Jaunak ipiñitako
 Artizar argiya;
 Begiratu zayozu,
 Nere sort-erriya
 Gozatu dediñ zure
 Naigabe larriya.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

1884-ko Abuztuan



(1) Entusiasmo.